Aipatutako katastro-baloreak eguneratu ahal izango dira Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Foru Arauetan finkatzen diren koefizienteekin bat etorriz.

**VI. ZERGA-KUOTA**

**16. Artikulua**

1.Zerga horren kuota osoa, zerga oinarriari zerga tasa aplikatzearen emaitza izango da.

Kuota likidoa kuota osoari legez ezarritako hobarien zenbatekoa kenduz aterako da.

2. Ondasun higiezinaren gaineko karga-tasa % 0,30ekoa izango da oro har, % 0,50eko tasa berezia izan ezik, taula honetan adierazten diren erabilerei aplikatuko baitzaie.

Hiri-ondasunei aplikatu beharreko karga-tasa zehazteko, katastroko araudian definitutako erabileren arabera, ondasun higiezinaren sailkapen hau ezartzen da eta erabilera bakoitzerako gutxieneko katastro-balioa zehazten da, eta hortik aurrera tasa berezia aplikatuko da:

Katastro-erabilera	Gutxieneko katastro-balioa (eurotan)	Zerga-tasa
Industria	880.000,00	% 0,50
Merkataritza	230.000,00	% 0,50
Eraikigarritasuna	290.000,00	% 0,50

Higiezinak erabilera bat baino gehiago dutenean, eraikin-erabilerari edo gela nagusiarri dagokion tasa aplikatuko da.

3. Zerga tasa landa izaerako ondasunetarako % 0,70 izango da.


**VII. HOBARIAK**

**17. Artikulua**

1. Zergako kuotan % 95 bonifikazioa izango dute, Babespeko Natur Esparruan kokatutako landaketa edo basoa duten landa-lurrak.

2. Zergako kuotan % 50 bonifikazio eskubidea izango dute, beti eta intesatuek hala eskatzen badute lanak hasi aurretik, oin berriko lanen zein berdinkidetu daitekeen eraberritze lanen arloan urbanizazio, eraikuntza eta higiezinaren sustapen Enpresen jardueraren objektua diren higiezinak eta ez daudenak bere ibilgetuaren ondasunen artean.

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504588\_1DMWY-8NC8S-XS78S\_17B9B8A0234907820703CD4FD336C2726523E) generada con la aplicación informática Firmados. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificar/Documentos.do?pes\_cod=2&ent\_LU=29&idIoma=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFK/CIF: P-0103800-I

Bonifikazio hau aplikatuko den epea izango da lanak hasi diren unetik amaitu osteko unera arte, beti eta denbora horretan zehar benetako urbanizazio edo eraikuntzan lanok gauzatzen eta burutzen badira, epe hori ezin da, inongo kasutan eta inoiz, 3 zerga ekitaldi baino luzeago izan.

3. Zergako kuotan % 50 bonifikazio eskubidea izango dute, behin betiko kalifikazioa eman ondorengo 3 zerga ekitalditan zehar, babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza sozialak. Bonifikazio hori interesdunak hala eskatuta eman ahal izango da, onura eskubideak iraungo duen 3 zerga ekitaldiak amaitu aurretiko edozein momentutan gauzatu ahal izanik, eta ondoreak izango ditu, hala badagokio, eskatzen duen unetik hasitako hurrengo ekitaldian.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu ondoren, Babes Ofizialeko etxebizitzek eta etxebizitza Sozialek % 75 hobaria gozatu dute zerga honen kuotan, 15 urteko epean zehar, beti ere epe hori obra amaiera data egunetik zenbatuta.

4. Kooperatiben zerga araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauan xedatutakoarekin bat, nekazaritza eta komunitate ustiapeneko kooperatibetako landa arloko ondasunek eskubidea izango dute kuotan hobaria izateko.

5. Zerga honen kuotan % 75eko hobaria izango dute gizarte etxebizitzaren finantza neurrien eta araubide juridikoaren zuzailaren 30eko 212/1996 Dekretuko 16. Artikuluan araututako azalera eskubideko erregimenean okupatutako gizarte etxebizitzek. Onuradunek hobari horretaz 15 urtez lupertzeko epea dute, eman den ekitalditik hasita.

6. Familia ugarien etxebizitzetarako hobaria ipintzea erabaki da, honako koadro honen arabera:


Seme-alaba kopurua	Familia unitatearen gehienezko diru sarrera garbiak (eurotan)	Hobaria
2 seme-alaba (desgaitasuna duen 1 edo guraso bakarreko familia) edo 3 seme-alaba	$((DBE + EPO) \times \text{ehuneko } 150) \times 2 \times 14$	% 90
4 eta 5 seme-alaba	$((DBE + EPO) \times \text{ehuneko } 150) \times 3 \times 14$	% 90
6 seme-alaba edo gehiago	$((DBE + EPO) \times \text{ehuneko } 150) \times 4 \times 14$	% 90

Eusko Jaurlaritzaren Enplegurako Euskal Zerbitzuak (Lanbidek) zerga sortzen den urtearen aurreko urterako ezartzen dituenak izango dira diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO), eta, zehazki, diru-sarrerak bermatzeko errentaren kasuan, sail orokorreko bizikidetzaren unitatearen pertsona batentzat ezartzen dena hartuko da kontuan.

Hobari hori edukitzeko eskatu behar izango da, nahitaez, eta urtero berritu behar da eskaera.

Hobariaren aplikazioa eta ezarpena eskatzen duten zergapekoek, eskaera-idatziarekin batera honako dokumentazio hauxe aurkeztu behar dute:

a) Familia-ugaria titulua, familia unitatea osatzen duten kide guztiak barne hartuta.



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504588\_1DMWY-8NC8S-XS78S\_17B9B8A0234907820703CD4FD336C275623E) generada con la aplicación informática Firmados. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://uialenegoitza.araba.eus/portal/verificar/Documentos.do?pes\_cod=2&ent\_LU=29&idIoma=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFK/CIF: P-0103800-I

b) Egindako azken Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena -PFEZ- edo / eta aitortpen hori egin beharrik ez izatearen adierazpena, gehi familia unitatearen 10-T dokumentuaren kopia konpultsatua.

7. Erabaki da zergaren kuota osoan hobari bat egitea etxebizitza erabilera bakarrek erabilera duten higiezinarako; betiere, etxe horrek subjektu pasiboaren eta bertan egoitza duen familia unitateko kideen multzoaren ohiko eta eguneroko etxebizitzaren izaera badu eta pertsona guzti horien artean urteko 21.000,00 euro baino errenta baxuagoa badute, ondoko eskalaren arabera:

Errenta	Hobaria
- 0 eurotik 6.000,00 eurora	% 90
- 6.001,00 eurotik 9.000,00 eurora	% 70
- 9.001,00 eurotik 12.000,00 eurora	% 50
- 12.001,00 eurotik 15.000,00 eurora	% 40
- 15.001,00 eurotik 18.000,00 eurora	% 30
- 18.001,00 eurotik 21.000,00 eurora	% 20

Hobari honen onuradun izango diren subjektu pasiboek ezin izango dute eduki beste inolako higiezinik udalerrian etxebizitzako erabilera bakarraz.

Idatzi-zati honetako lehen paragrafoan erabakitakoaren ondorioetarako, hauxe ulertu behar da dela:

a) Ohiko etxebizitza: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako halakotzat onartutakoa (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu zuen abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuko 67. artikulua).

b) Errenta: Zerga oinarria, kenduta konpentsaziozko pentsioen eta urteko mantenuagatiko kenkariak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 71. Eragin horietarako kontuan hartuko dira idatzi-zati honetan aipatutako hobaria aplikatuko den ekitaldiarekiko aurretiko urtean lortutako errentak:


3/07 Foru Arauko 71. artikulua: Murrizketak konpentsazio pentsioengatik eta urteko mantenuagatik: "Zerga-oinarri orokorrari eta, hala badagokio, aurrezpenaren zerga-oinarriari murriztu behar zaizkie, foru arau honek 69. artikuluan jasotakoari jarraituz, epailearen aginduz ezkontidearen edo izatezko bikote-lagunaren alde emandako konpentsazio pentsioengatik eta urteko mantenuagatik ordaindutako zenbatekoak, zergadunaren seme-alabei ordaindutakoak izan ezik."

Aurreko paragrafoan aipatu den errenta zehazteko, kontuan hartuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako datuak eta, auto-likidazioa aurkezteko obligaziorik ez den kasuetan, beste edozein informazio egoera hori egiaztatzea ahalbideratuko duena.

c) Familia unitatea: Aipatu den urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 100. artikuluan definitutakoa izango da:

"100. artikulua.- Familia unitatearen modalitateak. .

DOCUMENTO _ORDENANZA: 17- Ordenanza fiscal 2 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>1DMWY-8NC8S-XS78S</b> Fecha de emisión: <b>20 de Diciembre de 2021 a las 14:26:43</b> Página 12 de 16	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 20/12/2021 12:13 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 20/12/2021 13:31	ESTADO <b>FIRMADO</b> 20/12/2021 13:31



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504688\_1DMWY-8NC8S-XS78S\_17B9B8A0234907820708703CD4FD336C273523E) generada con la aplicación informática Firmados. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://valen.eogiz.a.eba.eus/portal/verificar/Documentos.do?pes\_cod=2&ent\_Lu=29&idIoma=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFK/CIF: P-0103800-I

1. Familia unitatea osatzen dute legez banandu gabeko ezkontideek eta izatezko bikoteko lagunek, bai eta, halakorik badago, hauek ere:

- a) Adingabeko seme-alabek, salbu gurasoen onespenez haiengandik aparte bizi direnek.
- b) Epailearen erabakiz ezgaitutako seme-alaba adindunak, luzatu edo berrezarritako guraso-agintearen pean daudenak .

2. Era berean, senar-emazteak legez banantzen direnean edo ezkontza-loturarik nahiz izatezko bikoterik ez dagoenean, eta horri buruzko ebazpen judiziala eman denean, gurasoetako batek eta aurreko idatz zatian aipaturiko baldintzak betetzen dituzten seme-alabek osatuko dute familia unitatea, norekin bizi diren alde batera utzita. Kasu horietan, beste guraso bat egonez gero, hori ez da aipaturiko familia unitateko kide izango.

Familia unitatea osatzeko, seme-alaba guztiak gurasoetako bati bakarrik egotziko zaizkio, bien arteko akordioz.

Akordiorik ez badago, epailearen erabakiz seme-alabak bakar bakarrik bere ardurapean dituen gurasoak osatuko du familia unitatea seme-alaba guztiekin batera. Kasu horretan, bi familia unitate egon daitezke, eta gurasoak eta judizialki beraren ardurapean bakar-bakarrik utzitako seme-alabek osatuko dute familia unitate bakoitza. Hori gertatzen denean, familia unitatea osatzeko, epaileak seme-alabaren baten zaintza esleitua behar da izan .

3. Inor ezingo da bi familia unitateko kide izan aldi berean.

4. Familia unitatea zeintzuek osatzen duten jakiteko, urte bakoitzeko abenduaren 31an dagoen egoerari begiratuko zaio.

Urtean zehar familia unitateko kideren bat hiltzen bada, familia unitateko gainerako kideek batera aitortzea aukeratu ahal izango dute, beren auto-likidazioan hildakoaren errentak sartuz. Gainera, hildakoak foru arau honetako VII. tituluaren III. kapituluari jasotako kenkari pertsonal eta familia kenkarietarako eskubiderik sortu badu, auto-likidazioan kenkari horiek ere sartu ahal izango dituzte, beren zenbatekoa egun horretara arte proportzionalki murriztu gabe.”

Hobari horrek erreguzko izaera du eta urtero eskatu beharko da, uztailearen 31 arte, egun hori barne.

Arestiko paragrafoetan erabakitako onura, hobari eta salbuespenak ezin dira metatu.


## VIII. SORTZAPENA: ORDAINDU BEHARRAREN SORRERA

### 18. Artikulua

- 1. Zerga ordaintzeko beharra urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da.

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 17- Ordenanza fiscal 2 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>1DMWY-8NC8S-XS78S</b> Fecha de emisión: <b>20 de Diciembre de 2021 a las 14:26:43</b> Página 13 de 16	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 20/12/2021 12:13 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 20/12/2021 13:31	ESTADO <b>FIRMADO</b> 20/12/2021 13:31



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504688\_1DMWY-8NC8S-XS78S\_17B9B8A0234907820703CD4FD336C2735623E) generada con la aplicación informática Firmados. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificar/Documentos.do?pes\_cod=2&ent\_Lu=29&idIoma=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFK/CIF: P-0103800-I

2. Zergapeturiko ondasunetan egin daitezkeen aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoek egin direneko zerga-aldian hurrengo zerga-aldian izango dutela eraginkortasuna; hala ere, eraginkortasun hori ez da egin beharreko egintza administratiiboak jakinaraztearen menpe egongo.

### 19. Artikulua

1. Zerga honen ezarpenaren objektu diren eskubideen titulartasun aldaketa kasuetan, edozein arrazoiengatik dela, eskubide horien objektu diren ondasun higiezinak tributazio kuota osoa ordaindu beharraren eraginpean geratuko dira, Tributazio Orokorreko Foru Arauan aurreikusitako terminoetan. Ondorio horiek izateko, baimenduko dituzten dokumentuetan notarioek informazioa eskatuko dute eta beren beregi oharraziko diete bertaratutakoei eskualdatzen den higiezinak ordaindu gabe dauzkan Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako zorrei buruz, zein eperen barruan behartuta dauden interesatuak zerga honen aitortpena aurkezteko, ondasunak zein neurritan eraginda dauden tributazio kuota ordaindu behar izateagatik eta, baita ere, aitortpenen aurkezpen faltagatik, epe barruan ez egiteagatik edo aitortpen faltu, ez oso edo ez zuzenak aurkezteagatik zeintzuk izango diren aurre egin beharreko erantzukizunak.

2. Zerga honen kuotaz erantzuten dute elkartasun eran eta bakoitzari dagokion partaidetza proportzioan, Zergen Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatzi-zatian aipatutako partaide- eta titular-kideak, baldin higiezinaren katastroan halakotzat inskribatuta badaude. Ez badira inskribatuta azaltzen, erantzukizuna, edozein kasutan ere, erdi bana eskatu egingo zaie.

## IX. ZERGA-KUDEAKETA

### 20. Artikulua

Zerga, urtero egingo den horren Erroldaren arabera kudeatuko da, eta ondasun higiezinaren zentsu konprehsibo, subjektu pasibo eta katastro-baloreez osatua egongo da, hiri izaerako eta landa izaerakoak bereiztuz. Aipatutako Errolda jendearen eskura egongo da Udaletxean.

### 21. Artikulua


1. Subjektu pasiboak Udala Administrazioan aitortzera derrigortuak daude, erreglamenduz zehaztuko den epean.
  - a) Eraikuntza berriak direnean, dagozkion alta adierazpenak egin beharko dituzte.
  - b) Zerga honen menpe dauden ondasunen eskuz aldatzeak gertatzen direnean, eskuratu duenak alta adierazpena aurkeztu beharko du eskualdaketa eragiten duen agiriarekin batera ; era berean eskualdatzaileak baja adierazpena aurkeztu beharko du eskuratzailearen izena eta helbidearekin, mugakideak eta ondasunen kokapena, eskualdaketa data eta egiten den kontzeptuan.

Eskualdaketa « mortis causa » egintzak sortua bada, ezarriko den epea Oinordekotzen gaineko zerga kitatu zen datatik hasiko da zenbatzen, eta oinordekoak bi adierazpenak egingo ditu, altakoa eta bajakoa.

- c) Kargapeko ondasunei dagozkion egoera fisiko, ekonomiko edo juridikoetan emandako aldaketengatik sor daitezkeen aldaera guztiak

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 17- Ordenanza fiscal 2 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>1DMWY-8NC8S-XS78S</b> Fecha de emisión: <b>20 de Diciembre de 2021 a las 14:26:43</b> Página 14 de 16	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udalak Firmado 20/12/2021 12:13 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udalak Firmado 20/12/2021 13:31	ESTADO <b>FIRMADO</b> 20/12/2021 13:31



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504688\_1DMWY-8NC8S-XS78S\_17B9B8A0234907820708703CD4FD336C275623E) generada con la aplicación informática Firmados. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalarenegoitza.araba.eus/portal/verificar/Documentos.do?pes\_cod=2&ent\_LU=29&idTomar=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFK/CIF: P-0103800-I

2. Atal honek aipatzen dituen deklarazioak ez aurkeztea edo ezarritako epeetan ez egitea zerga-hauspen simplea izango da.

## 22. Artikulua

Ondasun higiezinaren katastroetan dauden datuen barne sartzeari, kanpoan uzte edo aldatzea, katastro berrikuspenen emaitzak, katastro-baloreen finkatzea, berrikuspenera eta aldaketa, ikuskatzearen egintzak edo alden formalizazioa eta jakinarazpenak, egintza administratibotzak hartuko dira, eta zerga erroldaren aldaketa suposatuko dute. Ondasun higiezinaren katastroetan dauden datuei buruz aritzen den erroldaren edozein aldaketa, eskatuko du, nahi ta ez, zentzu berean azken hauen alde aurretiko aldaketa.

## 23. Artikulua

1. Ordainarazpen, kudeaketa, kitapen, ikuskatze eta bilketa ahalmenak, hala aldi boluntarioan nola premiazko bidetik, udalari dagokio, hurrengo 3 zenbakian ezarritakoaren kalterik gabe.

2. Zehazki, udalari dagokio alta eta baja kitapenak eta tramitatzea, erroldak jendaurrean ikusgai izatea, errekurtsio eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, zerga honekin loturiko gaien inguruko laguntza eta informaziorako salbuespen eta bonifikazio eta egintzak aplikatzea.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, foru arauetan araupeetutako salbuespenak eta hobariak ematen edo ukatzen direnean, udal eskudunak ematen duen ebazpena Foru Aldundiari helarazi beharko zaio.

3. Foru Aldundiari dagokio modu bakarrean zoruen eta balore-ponentzien mugaketa egitea eta onartzea, eta baita aipatutako mugapenen finkapena, berrikuspenera eta aldaketak eta katastro-baloreak eta prestakuntza, berrikuspenera, kontserbazioa eta katastro eta zerga erroldari datzekion gainontzeko funtzioak.

Laudio Udalak katastroa prestatzen eta kontserbatzen lagunduko dio Arabako Foru Aldundiari.

Foru Arau honetako 15. artikuluko 7. eta 9. idatz zatietan eta 14. artikuluko 4. eta 5. idatz zatietan aipatzen diren hobari pertsonalak udalak zehaztuta eta ebatzita baditu, ordainagiriak ere udalak berak egingo ditu. Era berean, Arabako Foru Aldundiari dagokio Zergaren katastro ikuskaritza egitea.

Salbuespenak eta hobariak ematen edo ukatzen direnean, udal eskudunak ematen duen ebazpena Foru Aldundiari helarazi beharko zaio.


## 24. Artikulua

Zoru mugaketa onartze-ekintzen kontra eta balore-ponentzien eta katastro-baloreen kontra tartearritako errekurtsio eta erreklamazioak Lurralde Historikoko Zergakiko Foru Arau Orokorrean ezarritakora egokituko dira. Errekurtsio eta erreklamazioak jartzeak ez ditu burutzapen egintzak geldiaraziko.

## 25. Artikulua

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 17- Ordenanza fiscal 2 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>1DMWY-8NC8S-XS78S</b> Fecha de emisión: <b>20 de Diciembre de 2021 a las 14:26:43</b> Página 15 de 16	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udalak Firmado 20/12/2021 12:13 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udalak Firmado 20/12/2021 13:31	ESTADO <b>FIRMADO</b> 20/12/2021 13:31



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504688\_1DMWY-8NC8S-XS78S\_17B9B8A0234907820703CD4FD336C2725623E) generada con la aplicación informática Firmados. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes\_cod=2&ent\_id=29&idoma=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFK/CIF: P-0103800-I

1. Errolda Foru Aldundiak egingo du eta Udalari bidaliko dio.
2. Jaso ostean, udalak jendaurrean izango du ikusgai 15 eguneko epean eragindakoez aztertu eta nahi izatekotan egoki deriztoren erreklamazioak jartzeko.

### 26. Artikulua

1. Jendaurrean izateko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzitakoan, Foru Aldundiari horren emaitzaren ziurtagiria bidaliko zaio onartua izan dadin.
2. Onartu ostean, beharrezko ordainagiriak egingo dira zergabilketa burutzeko.

### 27. Artikulua

Honako kapitulo honetan, zerga-kudeaketa, ezarritakoa, kudeaketa, kitapen, ikuskatze, zergabiltze eta zerga horrekin zerikusia duen beste edozein arloari dagokionez Laudio Udalak eta Arabako Foru Aldundiaren artean sinatu ahal diren hitzarmenen kalterik gabe ulertuko da.

## X. XEDAPEN GEHIGARRIA

6 f) artikuluan xedatutakoaren ondorioz eta 1979ko urtarrilaren 3ko gai ekonomikoei buruzko Estatu Espainolaren eta Sede Santuaren arteko Akordioa indarrean dirauen bitartean, honako ondasun hauek salbuespena izango dute :


- a) Gurtza egiteko tenplu eta kaperak, eta halaber, abade-jarduerarako gelak edo ondoan dauden eraikuntzak.
- b) Gotzain, Kalonje eta Apaizen egoitza arima zaintzarekin.
- c) Bulegoetara zuzendutako lokalak, Elizbarrutiko Kuria eta parrokiako bulegoak.
- d) Elizbarrutiko klero eta erlijioso prestatzeko apaizgaitegiak eta Unibertsitate eliztarrak, eliz-disziplinakoak diren ikasgaiak irakasten dituzten kasuan.
- e) Batez ere Ordenen, Kongregazio erlijiosoen eta erlijio-bizitzako Institutuetara zuzendutako etxe edo komentuak.

## XI. XEDAPEN IRAGANKORRA

Toki Ogasunen Zerga Araubidea eraldatu duen martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua indarrean sartu aurretik aitortuta egon diren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako zerga hobariak, gozatzeko eskubidea izateko kasuak zeintzuk diren zehazten dituelarik ere, jarraituko dute indarra izaten eta ez da behar izango erregurik ez eta eskaerarik aurkeztea. Iraungitzen data iritsi arte indarrean izango dira zerga ordenantza honetan jasota dauden aitortutako zerga hobariak

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local

DOCUMENTO _ORDENANZA: 17- Ordenanza fiscal 2 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: <b>1DMWY-8NC8S-XS78S</b> Fecha de emisión: <b>20 de Diciembre de 2021 a las 14:26:43</b> Página 16 de 16	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udala.Firmado 20/12/2021 12:13 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udala.Firmado 20/12/2021 13:31	ESTADO <b>FIRMADO</b> 20/12/2021 13:31



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504688\_1DMWY-8NC8S-XS78S\_17B9B8A0234907820703CD4FD336C2726523E) generada con la aplicación informática Firmados. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalaregoiza.araba.eus/portal/verificar/Documentos.do?pes\_cod=2&ent\_LU=29&idIoma=1



Herriko Plaza, z/g  
01400  
**Laudio/Llodio**  
(Araba)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)  
IFK/CIF: P-0103800-I

gozatzeko eskubideak, salbu eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989ko Foru Arauko 4. Artikuluko k letran aurreikusitako salbuespena, 12/2003 Foru Araua indarrean sartu denean indar barik geratu baita.

## XII. AZKEN XEDAPENA

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen honako Ordenantza Fiskala, orain duen erredakzioaz, behin-behineko izaeraz onartu zen 2021eko urriaren 4 egunean eta behin betiko izaeraz, urte bereko azaroaren 26 egunean. Indarrean jarriko da 2022ko urtarrilaren 1 egunean eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartuko den arte.

Elektronikoki sinatutako dokumentua

UDAL KUDEAKETA ARLOA ÁREA DE GESTIÓN MUNICIPAL  
ZERBITZUA: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa SERVICIO: Economía y Gestión Tributaria  
Zerbitzu unitatea: Tokiko Ogasuna Unidad de Servicio: Hacienda Local